



Milaka ur tanta

Aiora Avila Larrageta

EUSKARA NARRAZIOA 14-16 URTE

2. Saria

–Beldur naiz Kinan. –esan nion nire anaiari ohe azpian ezkutatuta nengoela.
–Lasai Nayla, laster bukatuko da.

Gaua zen eta ohe azpian nengoen ezkutatuta. Kanean tiro hotsak ziren entzuten zen gauza bakarra. Duela urte bat hasi zen gerra zibila, hala ere, ez nintzen ohitzen armek sortzen zituzten eztrandetara. Nire anaiak, Kinanek, gauero ipuinak kontatzen zizkidan lo hartu arte.

Hurrengo egunean, esnatu eta ur bila abiatu nintzen. Bidean nire lagun Zahararekin topo egin nuen.

–Kaixo! Zer moduz zaude? –galdetu nion irribarretsu.
–Beno, nekatuta nabil. Ezin izan dut lo egin.
–Nire anaiak dio ziurrenik laster bukatuko dela guda.

Urte bat pasa arren ez nuen itxaropena galtzen. Egoera inoiz baino txarragoa izan arren nire anaiak esandakoan konfiantza guztia jarrita neukan. Ur bila gindoazela elkar ezagutu genuen eguna oroitarazi nuen. Nik lau urte nituen eta etxeko atarian eserita nengoen amaren ondoan. Orduan, neskaxa txiki eta irribarretsua hurbildu zitzaidan, berak jolastera gonbidatu ninduen eta lagunak bilakatu ginen. Bost urte generamatzan elkarrekin eta luze irautea espero nuen. Ura hartu eta etxera abiatu ginen.

Afaltzerako iritsi zen baina, Kinan ez zen lanetik bueltatzen. Bat-batean tiroak entzun eta ohe azpian sartu nintzen ikaraturik. Nire anaia zaurituta egon zitekeen edo hilda. Malkoek nire begiak lausotu zituzten. Orduan, etxeko atea ireki eta oin batzuk somatu nituen.



—Nayla, non zaude? —Kinan zela ohartu bezain laster nire gordelekutik atera eta besarkatu egin nuen. Malkoen artean anaiak lasaitu ninduen.

—Zergatik berandutu zara? Zerbait gertatu ote zitzaizun beldur nintzen! —leporatu nion.

—Barkatu, ordu gehigarri bat egitea erabaki dut diru gehiago izan dezagun.

Izandako une txarraren ostean ezin izan nuen deus afaldu eta oheratzea erabaki nuen.

Asteak igaro ziren eta gure herriko egoera geroz eta larriagoa zen. Hasieran normaltasunez jarraitu nahi nuen, Kinanek, ordea, ur bila laguntzea erabaki zuen, ni bahitzeko beldur baitzen. Bera kezka handiz zebilen eta horrek ez zidan susmo onik ematen. Gehiegizko lana egiten zuen, berandu iristen zen etxera eta egun batean gizon arrotz batzuei dirua ematen ikusi nuen. Egun horretan, afaltzeko tenorean, zer gertatzen galdezka hasi nintzaion.

—Kinan, zer gertatzen da?

—Ezer ez, ez zaitez larritu.

—Gizon horiekin ikusi zaitut, zergatik eman diezu dirua?

—Alde egin behar dugu, herria ez da toki segurua zuretzat. Bi egun barru kostalderantz abiatuko gara, bertan ontzi bat hartu eta Europara eramango gaitu.

—Ez! Hemen daukat nire bizitza osoa, nire lagunak, gure etxea eta amaren oroitzapenak.

Goibel oheratu nintzen, ez nuen gai hori ukitu nahi.

Hurrengo goizean elkarri txintik esan gabe, Zahararekin elkartu eta anaiak aurreko gauean esandakoa kontatu nion; aho bete hortz gelditu zen.

—Faltan botako zaitut baina, zuretzat aukera bikaina da. Entzun dut Europan ikastolara joan zaitzekela eta emakumeak ere aintzat hartzen dituztela.

Arrazoia zeukan arren, oso egoera latza izango zen herritik alde egitea.

–Ei lasai, elkar ikusiko dugu berriz ere! Ez nazazu ahaztu eta kitto!

Nire lagunak bikain ezkututzen zuen tristura bere irri alaiaren atzean. Hala ere, bere masailetan ixurritako malkoek salatu zuten.

–Ez zaitut inoiz ahaztuko, egunero idatziko dizut eta laster elkartuko gara.

Besarkada luze eta beroa eman genion elkarri. Azkeneko eguna elkarrekin, amets gaiztoa zirudien.

Gauean nire anaiarekin adiskidetu eta bidaiarako beharrezkoak ziren gauzak gordetzera abiatu nintzen. Txikitako panpina, hiru jantzi eta amak emandako lepokoa. Bukatu bezain laster oheratu nintzen, hurrengo egunean goiz jaiki behar genuen eta.

Bidaia luzea izan zen, gehiena oinez, eta hiri batera iritsi orduko autobusa hartzea erabaki genuen gelditzen zitzaigun diruarekin. Orduak eta orduak igaro ziren, ilargia ageri zen. Nekeak harrapatu ninduen eta nire anaiaren sorbaldan lokartu nintzen.

Nire anaiak esnatu ninduenean, oraindik gauez autobusetik jaitsi eta kostaldean zegoen talde batengana hurbildu ginen. Iristean armadun gizon batzuk zeuden ontziaren aurrean. Kontrolatzen ari ziren, nor sartu eta nor ez. Anaiaren atzean ezkutatu nintzen beldurturik.

Jendez gainezka, lerrokatu gintuzten.

Azkenik, ontzira igo eta anaiaren ondoan eseri nintzen inguruko jendea begiradaz aztertuz. Gehien-goia gizonezkoak ziren eta gutxi batzuk emakumeak haien seme-alabekin. Gure ondoan nire adineko mutiko bat zegoen. Hasieran, kezkatu nirengoen olatuek eragiten zituzten mugimendu bortitzengatik. Itsasoa baretu ostean lasaitu nintzen; asperduraren eraginez mutikoarekin hitz egitera ausartu nintzen.

–Kaixo, ni Nayla naiz eta bederatzi urte ditut. Zuk nola duzu izena?

Mutikoak, lotsaz beterik, ez zidan tutik ere esan. Orduan, bere amak errieta egin zion.

–Shaim, ongi hezitako mutikoa izan eta erantzun neskatxa polit horri!

—Kaixo, Shaim naiz eta hamar urte ditut —esan zuen mutikoak totalka eta gorriturik.

Egoera horrek eragindako barreari eutsi eta hizketan hasi ginen. Haiek Niger-eko herri batetik zetozen, bere ama haurdun zegoela esan zidan. Hori dela eta, erabaki zuten Europara abiatzera, etorkizun hobe baten bila. Nik herrian neukan lagunei buruz hitz egin nion. Zahara oroitzean goibeldu nintzen. Nola egongo zen herrian?

Gauean izaturik esnatu ginen, ontzia bortizki mugitzen zen olatuen eraginez. Beldurraren beldurrez burua hanken artean ezkutatu nuen. Orduan, Shaimek ni besarkatu eta lasaitzen saiatu zen.

Goizean gose ginen eta mutikoak bere janaria nirekin partekatzea erabaki zuen.

—Lagunak gara eta lagunek elkar zaintzen dute. —esan zidan irribarretsu.

—Mila esker Shaim, oso lagun zintzoa zara.

—Zer egingen duzu Europan? —galdetu zidan jakin minez.

—Eskolara joan eta bertan idazten ikasiko dut, eta horrela herriko laguna den Zaharari, idatzi egingo diot. Zuk zer egingo duzu?

—Niri ere eskolara joatea gustatuko litzaidake, baina lanen bat aurkitu eta dirua lortuko dut nire ama eta ahizpatxoak zaintzeko.

Ezin nuen sinetsi bere ametsa alde batera utziko zuela bere familiaz arduratzeko. Oso mutiko heldua iruditu zitzaidan, hamar urte izan arren.

Gau batean loak ezin hartu nenbilela haizeak gero eta indartsuago jotzen zuela ohartu nintzen. Nire anaia esnatu nuen baina, berak lasai egoteko eta lotan jarraitzeko esan zidan. Orduan, Shaim iratzarri nuen. Mutikoak bere herriko kondaira bat kontatzea erabaki zuen nik lo egin nezan. Shaim lo seko gelditu zen kondaira bukatu aurretik eta nire begiak ixten ziren bitartean, ur tanta hotzak sentitu nituen aurpegian. Agondu nintzenean olatu handiak ikusi nituen. Zer egin nezakeen? Nire anaia astindu nuen beldurrak eraginda. Bera bat-batean esnatu eta berehala jabetu zen, olatu ikaraga-



riak zetozen gure ontziaren kontra. Gainontzekoak esnatu eta oihuka hasi ziren. Sarrakioa jendeaz jabetu zen eta guztiak zalapartan hasi ziren. Ontzia urez betetzen hasi zen gu gutxinaka ondoratuz. Guztiok genituen salbamendu jakak. Nire anaiak jantzita neukana ikusi zuen eta beldurrez beterik:

–Nayla jantzi ezazu nire jaka, emaidazu zurea, azkar!

–Zergatik? Zer gertatzen da?

–Zeurea zulatuta dago.

Ez zen posible, erreakzionatu ezinik nengoen; nire anaiak salbamendu jaka kendu eta berea jantza-razi zidan.

–Ez! Jantzi ezazu zurea, bestela hil egingo zara!

–Entzun nazazu, bidaia zuk etorkizun hobe bat izateko da, Europara iritsi eta bertan eskola batean ikasiko duzu. Maite zaitut. –Nire anaiak hori esan bezain laster olatu erraldoi batek ontzia irauli zuen.

Ez nuen ezer ikusten ur azpian. Ezin nuen arnastu eta goialdera ateratzen saiatu arren ez nuen lortzen. Zerbait neukan hankan korapilaturik. Ezin nuen heltzen nuena kendu eta besoa ur kanpora ateratzea saiatu nintzen. Orduan, Shaim agertu zen, salbamendu jaka kendu eta nire hanka libratze-
ra abiatu zen. Ezinezkoa izan zen, konortea galtzen ari nintzen. Shaimi azken begirada bota ostean, nire begiak itxi nituen eta igeri egiten saiatzeari utzi nion. Nire gorputza itsasoan murgiltzen ari zen eta nire laguna ni goraka ateratzen saiatzen.

